

Jose Maria Arizmendiarrietaren burubideak Arrasateko kooperatibagintzaren alde bere garaiko gizarte giroan

PAKO GARMENDIA*

1. Galdera galdekizun

Jose Maria Arizmendiarretak (JMA) esan, egin eta bizi izandakoei buruz oinarriko azterketa bikainak egin izan dira. Batzuek aipatzen hasita, Joxe Azurmendik, J. Ignacio Tellecheak, Fernando Molinak eta Joseba Azkarragak idatzitakoak jar daitezke adibide gisa, ikuspuntu ezberdinetatik abiatuta burutuak eta elkar aberasten dutenak¹. Horien aurretik eta ondoren ere milaka dira gai bertuen inguruan argitara emandako gogoetak. Geuk ere aztergai izan genuen 1981ean Arrasateko Kooperatiba Esperientzia (AKE) eta talde-lan gisa eman genuen argitara gure iritzia, ikasbide on askoren iturri aberatsa zitzaigula aitortuz, herrikideok geure buruen jabeago izateko bidean². JMA eta AKE hizpide duten gogoetak, aztergai diren pertsonen eta esperientzien gizarte-giroa ulertzeko balio lezaketen neurri berean, gertatuen berezko giro sozial hura berrasmatzeko ere erabil daitezke. Aztertzaila bakoitzak bere galderen giroa ezartzen baitio aztergaiak jatorriz berezkoa zuenari. Nik ere neurea erantsiko diodala, aldeaz aurretik aitortzen dizut.

* Deustuko Unibertsitateko Katedradun Emeritua. Zumaia

¹ Joxe Azurmendi, *El hombre Cooperativo. El pensamiento de Arizmendiarrieta*, Azatza, S.L. (Otalora) 1984 (DB=ARJA); Fernando Molina, *Biografía de Dn. José María Arizmendiarrieta* (1915-1976), Caja Laboral - Euskadiko Kutxa 2005 (DB=ARFM); J. Ignacio Tellechea, *El otro Dn José María*, Caja Laboral - Euskadiko Kutxa 2005 (DB=ARIT); Joseba Azkarraga, *Identitate kooperatiborearen bilakaera: Arrasateko kooperatiba esperientzia*. Tesi Doktorala – Soziologia, Urtea: 2006. (DB=ARAZ).

² Anton de Irala, J. Artola, F. Garmendia, J.L. Iriarte, J. Mimentza, J. Murua, *Revolución-Represión o Burujabetza*, Donostia 1981.

Historian garatzen diren gertakizunek, baina, ba ote dute berezko gizarte-giro jakinik? JMA Arrasatera 1941ean iritsi zenetik eta 1976an zendu zen bitartean, asko aldatu ziren bertako biztanleria eta ekonomia –Deba Garaikoa edo Euskadikoa edo Europakoa bezala–, baina zehatz-mehatz jarrai daiteke urtez urte, ia egunez egun, zenbat lagunek osatzen zuten herria edo zer preziotan saltzen zen azoketan kiloko ogia. Zaila egiten zaigu, ordea, zehaztea, aldi eta alde berean, zer-nolako izaera eta bilakaera izan zuen JMAREN eta bere herrikide zituenen arteko harremanen giroak. Gizarte-giroa sustrai eta lore askoren arteko elkar eraginez osatzen den zuhaitza baita, baldintza biofisikoek baino eragin handiagoa dutelarik gizarte giroaren osaketan usteek, sentipenek, sinesmenek, desirapenek, asmoek, ideiek, arauak, ohiturek ... Gizarte-egoera berez doa/dator joan-etorrian, joan-arian, eta aldi batean bildurik zeuden urak berehala bana daitezke hamaika errekatan edo alderantziz.

Hain zuzen, ofizioz eta bokazioz, buruz gehien landu izan dudana arloa, ideien eta erakundeen mundua izan da: gizarte-giroaren alderik iheskorrena, gizon-emakumeon baitakoena, burubideei eta jokabide arautuei lotuena. Alderik argitu zailenak dira, hain zuzen, giro hori sortu-eraike-antolatu-jasaten duten herritarren sentitzeko, pentsatzeko eta aritzeko moduen adierazgarri diren burutapenak eta hizpideak. Alde horixe helduta osatu dira ondorengo lerroak, honako galdera dutelarik ardatz: *JMAk egin-eragin zuenak zer du berezko bereizgarririk, gertatu eta burutu zen gizarte eta herrigintzaren giroan, ideiei, asmoei, helburuei eta bitartekoei dagokienez?*

Burubideen kaiolari, baina, euskarri sendoa jartzea komeni da. Soilik JMAREN pentsaera bagenu aztergai, berak idatziak eta esanak kontutan hartuta bakarrik oinarri sendoa genuke. Baina pentsaera horren eta inguruko gizarte-giroan eraginik zuten beste pentsaera eta jokabideen arteko harremana aztertzea izanik helburu, nola mugatu inguruko pentsaera-jokabide horien lekukoak? Arazoaz jabeturik, hiru bidetatik hurbilduko natzaio galderari. Lehenik, JMAREN eskuko idatzietara eta biografiara joko dut erantzun bila. Bigarrenik, AKE abian jarri eta handik hamar urtetara burutu zen bilera gogoangarri batean izandako eztabaidetan esanak jorratuko dira. Hirugarrenik, beste hainbatek idatzitakoak ere kontutan hartuz, aztergai dudana galderaren inguruan neure gogoeta pertsonalagoa egitera jarriko naiz.

2. JMAREN eskuko idazkietatik eta biografiatik erantzun bila

Egia da bakoitzak bere erara jaso eta ulertu ohi duela irakurtzen duen idazki oro. Baina egia da, orobat, idazlan bakoitzak baduela berezko zenbait osagai, zehatz neurtzeko aukera eskaintzen dutenak: adibidez, darabilen hizkuntza eta hizkera,

agertzen diren hitzen eta erabiltzen dituen kategorien batez besteko maiztasuna, baieztatzen dituenak eta ezeztatzen dituenak, idazkiaren jatorrizko ingurunean ohizkoak ziren hitzetatik inoiz aipatzen ez direnak...

JMAk idatzitakoak 13 liburukitan eman dira argitara, hainbat ikerlarik aztertu izan dituztenak³. Hain zuzen, liburuki horietan erabilitako hitzetatik abiatuz, zenbait kategoria osatu da, adibidez:

KATEGORIA	KATEGORIA HORI ADIERAZIKO LUKETEEN HITZAK ⁴
GIZAKI - PERSONA	(PERTSONA PERTSONAK PERTSONEK\$ PERSONA PERSONAS GIZON\$ HOMBRES MUJER\$ ANDRE ANDREAK EMAKUM\$ ANDERES\$ ANDRAZKO\$ HUMANO HUMANOS HUMANA HUMANAS GIZAKI\$ GIZA GIZA-\$)
GIZARTE -SOCIAL	(GIZARTE\$ SOCIEDAD\$ SOCIAL SOCIALES)
EMPRESA - LANTEGIA	(EMPRESA\$ ENPRES\$ ENTREPRES\$ INDUSTRI\$ (CENTRO ADJ2 TRABAJ\$) LANTEGI\$ LANTOKI\$ FABRICA FABRICAS FABRIKA FABRIKAK\$ TALLER\$)
LAN - TRABAJO	(TRABAJO\$ LAN LANA LANAK LANARES\$ LANARI\$ LANEK LANENTZ\$)
JAINKO - DIOS - JK	(JESUKRIS\$ O JESUS\$ O JESUCRIS\$ O DIOS\$ O CRIST\$ JAINKO\$ JAUNGOI\$)

³ José María Arizmendiarrieta, *Escritos de...* Berak idatzietatik osatu diren 13 liburukien izenburuak honako hauek dira:

- Conferencias, Apostolado Social
- Sermones 1ª Parte
- Sermones 2ª Parte
- Primeras Realizaciones 1ª Parte
- Primeras Realizaciones 2ª Parte
- Escuela Profesional 1ª Parte
- Escuela Profesional 2ª Parte
- Caja Laboral y grupo asociado 1ª Parte
- Caja Laboral y grupo asociado 2ª Parte
- Caja Laboral y grupo asociado 3ª Parte
- Formación Cooperativa 1ª Parte
- Formación Cooperativa 2ª Parte
- On Jose Mariaren Euskal Idatziak

Liburu guzti horien edizio digitala honako helbide honetan eskura daiteke:

<http://www.euskomedia.org/arizmendiarrieta?idi=es>

⁴ Ikerketa hau errazteko erabili de informatikako programa BRS da eta hitzen zehazpena errazteko erabili diren ikur eta hitz ordeko hauek argitzea komeni da: \$ = hitz horren amaiera ezberdinak onartzen direla, adibidez *europ\$* (= europa, europaren, europako, e.a.); *adj2* = ondorengo bi hitzetakoren bat zein izan behar duen adierazten du (adibidez *centro adj2 trabaj\$*) = (*centro de trabajo, centro de trabajadores e.a.*)

Horrela osatu dira 54 kategoria ezberdin⁵, garrantzizkoak direlako –erlatiboki– JMA beraren hizpidean. Ondoren, honako galdera honi erantzun zaio: ea nolako garrantzia erlatiboa duten kategoria horiek, alde batetik, JMAREN esku-ko 13 liburukietan (DB=ARDE), eta, bestetik, JMAREN landutako pentsaera edota bultzatu zuen MKE interpretatu izan duten honako liburu edo idazki hauetan:

- Joxe Azurmendi, *El hombre Cooperativo. El pensamiento de Arizmendiarrieta*, Edt. Azatza, S.L. (Otalora), 1984 (DB=ARJA)
- Fernando Molina, *Biografía de Dn. José María Arizmendiarrieta (1915-1976)*, Caja Laboral - Euskadiko Kutxa 2005 (DB=ARFM)
- J. Ignacio Tellechea, *El otro Dn José María*, Caja Laboral - Euskadiko Kutxa 2005 (DB=ARIT)
- Joseba Azkarraga, *Identitate kooperatiboaren bilakaera: Arrasateko kooperatiba esperientzia*. Tesi Doktorala – Soziologia, Urtea: 2006. (DB=ARAZ)
- Joseba Azkarraga, *Identitate kooperatiboaren bilakaera: Arrasateko kooperatiba esperientzia*. Tesi Doktorala – Soziologia, Urtea: 2006. Sortzaileen hizpideari eskainitako atala. (DB=ARZF).

54 Kategoria horietatik, aipatu diren 6 idazki corpus ezberdinetako bakoitzean maiztasunik handiena duten lehen 20 kategoriak oinarri hartuta, 37 kategoria dituen zerrenda osatu da (ikus I Eranskina). Horietaz galdetu da alderatu diren 6 idazki corpusetan.

Ikerketa honen emaitzek bi zera argitzeko balio lezakete: bata, aukeratu eta osatu diren 54 kategoria horien garrantzia erlatiboaren zenbatekoa zehazteko JMA berarengandik jaso ditugun idazkien guztizkoan, eta, biga, bere idazkien eta MKEaren interprete seinalatu batzuen idazkietan, kategoria horiek duten garrantzia erlatiboarekin alderatzeko.

Ondoren dakargun Taula honetan, ikerketaren emaitzak eskaintzen dira, kategoria bakoitzak idazki corpus bakoitzean duen balio indizea⁶ zehaztuz:

⁵ Aztertzailearen esku dago kategoria bakoitza estu edo zabal mugatzea, hitz edo esaera bakar bat ala asko hartuz bere adierazletzat.

⁶ Kategoria bakoitzak idazkien corpus jakin batetan duen garrantzia erlatiboa neurtzeko, kategoria horren adierazletzat jotzen diren hitzek duten *Elkarlotura Ponderatu Erlatiboaren Indizea* (EPEI) kalkulatu da. Kategoria denentzat prozedura berdina erabiliz, kategoria ezberdinek elkarrekiko duten batez besteko lotura jakin daiteke. Hori eginik idazki corpus ezberdinetan, corpus horietan kategoriek duten pisua konparatzeko aukera dago.

I TAULA

54 KATEGORIETATIK KONPARATZEN DIREN 6 CORPUS EZBERDINETAKO BAKOITZEAN 20 KATEGORIARIK AIPATUENAK, BAKOITZAREN BALIO INDIZEA ZEHAZTEN DELARIK

	ALDERATZEN DIREN AUTOREAK	JMA	AZURMENDI	MOLINA	I-TELLE	AZKARRAGA	AZKAR-FUNDA
		ARDE	ARJA	ARFM	ARIT	ARAZ	ARZF
DOC		13	1	1	1	1	1
1	GIZAKI - PERSONA	488,84	541,13	295,74	318,06	277,62	465,14
2	GIZARTE -SOCIAL	335,72	379,50	434,02	225,00	517,31	66,45
4	ENPRESA - LANTEGIA	269,49	307,16	380,70	66,67	402,64	15,10
5	LAN - TRABAJO	263,83	409,66	270,86	158,33	179,81	60,41
6	JAINKO - DIOS - JK	252,34	107,47	272,64	812,50	47,41	172,16
8	BEHARRIZAN - NECESIDAD	176,16	163,18	79,62	141,67	70,06	75,51
7	HEZKUNTZA - EDUCA	152,81	158,89	161,02	100,00	75,16	60,41
9	HERRI - PUEBLO	129,23	102,67	79,98	56,94	77,61	178,20
10	SUSTAPEN PROMOCION	126,17	107,99	72,87	52,78	143,29	105,71
11	FAMILIA	120,81	66,16	163,51	125,00	25,99	217,47
13	PROGRAMA - PLAN	107,95	64,62	86,73	68,06	92,01	377,55
14	KRISTAU - CATOLIC	97,61	81,25	215,05	493,06	30,73	69,47
15	EGIA - VERDAD	88,66	56,74	33,06	81,94	24,41	42,29
16	EKINTZA - ACCIÓN	78,32	61,02	98,82	300,00	139,07	30,20
17	TEKNO - TEKNI	68,22	59,65	59,36	25,00	75,33	6,04
18	ASKA - LIBERTAD	68,14	109,53	33,77	47,22	60,41	9,06
19	MODERNŞ VANGUARD	64,08	68,05	42,30	25,00	211,77	800,41
20	ANTOLAŞ ORGANIZAŞ	64,00	63,93	37,68	22,22	63,04	24,16
21	ALDE APOYO	62,63	51,94	59,01	75,00	101,49	99,67
12	TALDE GRUPO	61,17	46,45	108,06	43,06	84,64	229,55
22	ELKARTASUN SOLIDARIDAD	50,95	87,42	32,35	26,39	75,51	0,00
23	BETEBEHARŞ DEBERS	49,84	50,39	28,08	48,61	21,07	57,39
24	ESKUBIDEŞ DERECHOS	48,39	57,59	27,73	29,17	18,61	18,12
25	EKIMENŞ INCIATIVŞ	45,71	42,85	31,64	48,61	32,66	12,08
26	LEGE LEY	44,56	38,40	54,74	22,22	73,22	57,39
27	PUBLIKOŞ PUBLICOŞ	44,40	35,48	104,15	22,22	37,75	66,45
28	GAITASUNŞ DESTREZAŞ	43,96	44,05	29,15	33,33	78,67	6,04
29	NAZIO NACIONAL	43,64	48,68	93,49	16,67	36,52	39,27
3	GIZABANAKO - INDIVIDUO	43,56	48,85	26,30	38,89	50,05	81,55
30	ERANTZUKIŞ RESPONSABŞ	42,61	57,25	39,81	61,11	26,69	0,00
31	ETORKIZUNŞ PORVENIR	42,11	40,28	48,34	25,00	82,71	36,24
32	CULTURAŞ KULTURAŞ	39,20	51,42	97,75	20,83	157,33	51,35
33	HELBURUŞ OBJETIVOŞ	34,38	41,48	11,73	45,83	107,47	24,16
34	SALEROS COMERCIO	19,37	16,97	15,64	2,78	79,72	3,02
35	LANPOSTUŞ EMPLEOŞ	13,32	8,57	8,89	6,94	34,94	54,37
36	EGITASMOŞ PROIECTO	10,30	13,03	47,28	13,89	76,74	0,00
37	IKERTŞ INVESTIGA	7,51	10,28	18,13	0,00	10,54	87,59
DOC		13	1	1	1	1	1

Bigarren zutabeen kategoria aipatzen da –kategoria hori osatzeko erabili diren hitzak I Eranskinean daude adieraziak– eta hirugarren zutabeen (JMA – ARDE) kategoria horietako bakoitzari JMAREN 13 liburukitan dagokion balio indizea zehazten da (EPEI), baliorik handienetik txikienera sailkatuz. Hurrengo bost zutabetan, alderatzeko aukeratu ditugun bost idazkietako bakoitzean kategorია berak duen balio indizea adierazten da.

Erabili den metodologiaren baitan, idazki multzo edo autore bakoitzarengan kategoría bakoitzari eskaintzen zaion garrantzia erlatiboa oso erabakitzailea gertatzen da, ondorioak atera ahal izateko. II Taulan, JMAREN idazki bildumaren gutztzakoan kategoría bakoitzak duen balio indizea oinarri hartuz, horrekiko alde edo distantzia beste corpusetako bakoitzean zenbatekoa den adierazten da: handiagoba, urdinez eta zenbaki positiboz, eta txikiagoba, horiz eta zenbaki negatiboz.

II TAULA

JMAREN CORPUSEAN KATEGORIEK DUTEN BALIO INDIZEA OINARRI HARTUTA, HORREKIKO ALDEA EDO DISTANTZIA BESTE CORPUSETAKO BAKOITZEAN

	ALDERATZEN DIREN AUTOREAK	JMA	AZURMENDI	MOLINA	I-TELLE	AZKARRAGA	AZKAR-FUNDA
		ARDE	ARJA	ARFM	ARIT	ARAZ	ARZF
DOC		13	1	1	1	1	1
1	GIZAKI - PERSONA	488,84	52,30	-193,09	-170,78	-211,22	-23,69
2	GIZARTE -SOCIAL	335,72	43,78	98,30	-110,72	181,59	-269,27
4	ENPRESA - LANTEGIA	269,49	37,67	111,21	-202,83	133,15	-254,39
5	LAN - TRABAJO	263,83	145,84	7,04	-105,49	-84,02	-203,42
6	JAINKO - DIOS - JK	252,34	-144,87	20,30	560,16	-204,93	-80,18
8	BEHARRIZAN - NECESIDAD	176,16	-12,99	-96,54	-34,50	-106,10	-100,65
7	HEZKUNTZA - EDUCA	152,81	6,08	8,21	-52,81	-77,66	-92,41
9	HERRI - PUEBLO	129,23	-26,56	-49,25	-72,29	-51,62	48,97
10	SUSTAPEN PROMOCION	126,17	-18,18	-53,30	-73,39	17,12	-20,46
11	FAMILIA	120,81	-54,65	42,70	4,19	-94,82	96,66
13	PROGRAMA - PLAN	107,95	-43,33	-21,22	-39,89	-15,94	269,60
14	KRISTAU - CATOLIC	97,61	-16,37	117,44	395,44	-66,88	-28,14
15	EGIA - VERDAD	88,66	-31,92	-55,60	-6,71	-64,25	-46,37
16	EKINTZA - ACCIÓN	78,32	-17,30	20,50	221,68	60,75	-48,12
17	TEKNO - TEKNI	68,22	-8,57	-8,85	-43,22	7,12	-62,17
18	ASKA - LIBERTAD	68,14	41,39	-34,37	-20,92	-7,73	-59,08
19	MODERNŞ VANGUARD	64,08	3,97	-21,78	-39,08	147,69	736,33
20	ANTOLAS ORGANIZAS	64,00	-0,07	-26,33	-41,78	-0,97	-39,84
21	ALDE APOYO	62,63	-10,69	-3,62	12,37	38,87	37,05
12	TALDE GRUPO	61,17	-14,72	46,89	-18,12	23,47	168,38

22	ELKARTASUN SOLIDARIDAD	50,95	36,46	-18,61	-24,56	24,55	-50,95
23	BETEBEHAR\$ DEBERS	49,84	0,55	-21,76	-1,23	-28,77	7,55
24	ESKUBIDES DERECHOS	48,39	9,21	-20,66	-19,22	-29,77	-30,26
25	EKIMENS INCIATIV\$	45,71	-2,85	-14,07	2,90	-13,05	-33,62
26	LEGE LEY	44,56	-6,16	10,18	-22,34	28,67	12,83
27	PUBLIKO\$ PUBLICO\$	44,40	-8,92	59,75	-22,18	-6,65	22,04
28	GAITASUN\$ DESTREZA\$	43,96	0,09	-14,81	-10,62	34,71	-37,92
29	NAZIO NACIONAL	43,64	5,04	49,85	-26,97	-7,12	-4,37
3	GIZABANAKO - INDIVIDUO	43,56	5,29	-17,26	-4,67	6,48	37,99
30	ERANTZUKI\$ RESPONSAB\$	42,61	14,64	-2,80	18,50	-15,92	-42,61
31	ETORKIZUN\$ PORVENIR	42,11	-1,83	6,23	-17,11	40,60	-5,86
32	CULTURA\$ KULTURA\$	39,20	12,22	58,55	-18,37	118,14	12,15
33	HELBURU\$ OBJETIVO\$	34,38	7,11	-22,65	11,46	73,09	-10,21
34	SALEROS COMERCIO	19,37	-2,40	-3,73	-16,59	60,35	-16,35
35	LANPOSTU\$ EMPLEO\$	13,32	-4,75	-4,43	-6,38	21,62	41,05
36	EGITASMO\$ PROIECTO	10,30	2,73	36,98	3,59	66,44	-10,30
37	IKERT\$ INVESTIGA	7,51	2,77	10,61	-7,51	3,02	80,08
DOC		13	1	1	1	1	1

Azurmendiren liburuan, zenbatekoari dagokionez behinik behin, garrantzi handiagoa dute “LAN - TRABAJO”, “GIZAKI - PERSONA”, “GIZARTE - SOCIAL” edo “ASKA - LIBERTAD” kategoriek, baina txikiagoa beste hauek: “JAINKO - DIOS - JK”, “FAMILIA”, PROGRAMA-PLAN” edo “EGIA-VERDAD”

Molinenaren biografian, garrantzia gutxiago “GIZAKI - PERSONA”, “BEHARRIZAN - NECESIDAD”, “EGIA - VERDAD” edo “SUSTAPEN PROMOCION” kategoriek, eta handiagoa beste hauek: “KRISTAU - CATOLIC”, “ENPRESA - LANTEGIA”, “GIZARTE -SOCIAL” edo “PUBLIKO\$ PUBLICO\$”.

Tellechea Idigorasen idazkian goitik nabarmentzen dira “JAINKO - DIOS - JK”, “KRISTAU - CATOLIC”, “EKINTZA - ACCIÓN” edo “ERANTZUKI\$ RESPONSAB\$” eta, behetik, “ENPRESA - LANTEGIA”, “GIZAKI - PERSONA”, “GIZARTE -SOCIAL” edo “LAN -TRABAJO” (kontutan hartzekoa da liburuen izenburua ere honako hau dela “*El otro D. José María*”).

Azkarragaren tesian gainetik dabilta “GIZARTE -SOCIAL”, “MODERN\$ VANGUARD”, “ENPRESA - LANTEGIA” edo “CULTURA\$ KULTURA\$” kategoriak, eta azpitik “GIZAKI - PERSONA”, “JAINKO - DIOS - JK”, “BEHARRIZAN - NECESIDAD” edo “FAMILIA”.

Azkarragaren tesi horretan bertan MKEaren sortzaileei eskainitako kapituluaren gorago agertzen dira “MODERN\$ VANGUARD”, “PROGRAMA - PLAN”, “TALDE GRUPO” edo “FAMILIA”, beherago agertzen direlarik “GIZARTE -

SOCIAL”, “ENPRESA - LANTEGIA”, “LAN - TRABAJO” edo “BEHARRIZAN - NECESIDAD”.

Lehen ondorio xumea zera da: oso zaila gertatzen da JMAREN eskuko idazkiak eta berak ere bultzatu zuen MKEa ulertzerakoan aipatu kategorien arteko oreka homogeneizatua lortzea.

Alderatuko bagenitu JMAREN idazkien bilduma eta MKEren baitan sortu diren erakunderik esanguratsuenen WEB orrietan eskaintzen diren idazkien corpusak, aldeak askoz handiagoak lirarteke kategoria ezberdinei eskaintzen zaien garrantziari dagokionez⁷.

3. JMAREN hizpidea bere biografiaren mugarrietatik argitzen

JMA nor eta zer den bere berezkoan –bere garaiko giroan kokatuta– beti izango da eztabaidagarri, galdera hori egiten dugunok, sarritan, ez dugulako errespetatzen bere baitan zuten oreka aipatu ditugun kategoriek edo ez ditugulako erreparatzen hizpide horren atzea eta aurrea. Edonoren nor izatea, bere ezaugarri ezberdinen arteko osaera jakina da, beti osatzen eta beti asmatzen, bere buruari etorkizun zaizkionetatik gertakizun bilakatuz aukera bat edo beste, aurreak –gero izan nahiak– erakusten diolarik nola dantzatu atzea –iragana–. Pertsona bakoitzari dagokionez, heriotzak mugatzen du mundualdi honetan lor dezakeen osaera. JMAk bere buruaren osaera horren lekuko den hizpidea utzi digu aipatu 13 liburukitan. Hizpide horren barneko oreka errespetatu beharra dagoela esan liteke, bere izaeraren berezkoa jaso ahal izateko.

Baina hizpide hori ulergarri eta bereizgarri gertatzea zaila da, bere bizitzaren osaeran bide mugarri gertatu diren aukera jakin eta nabariak kontutan hartu gabe. Horietako bi aipatzekotan, JMAREN helduaroko izanbidea sustraitik markatu duten bi gertakizun-aukera azpimarra daitezke:

- JMAk abade izatea aukeratu du, garai hartan aurrerakoia zen kristau katoliko-
en etorrian kokatzen duen bere burua (Barandiarango Joxe Migel, Emmanuel Mounier, Jacques Maritain, Pierre Teilhard de Chardin ... ditu gogokoenen artean, kristau etorriko tradizioari jarraibidea emateko bere eginahalean).

- Agirre Lendakaria buruzagi zuen Euskadiren aldeko egitasmoaren baitan nabarmentzen da lanean, kulturgintzari atxikitako eginbideetan, “gurutzada katolicoa” ikur hartu zuten matxinatu frankisten kontra.

⁷ Ikerketa hori egin dago eta emaitzak ALEk 2012n egin zuen bere ohizko Batzar Nagusian aurkeztuak izan ziren. . Aztertutako erakunde guztien WEB orrietatik JMAREN hizpideari gehien hurbiltzen zitzaiona, hain zuzen, ALE, Arizmendiarrietaren Lagunen Elkartearena da. Ikusi II Eranskina.

Bi hautu-erabaki horiek behartu gabe ezkontzen dira JMAREN hizpidearekin eta berak aipatu kategoriei ematen dien batez besteko garrantziarekin. Nabarmen bereizten da bere ingurune hurbilean eta ez hain hurbilean beren buruak katoliko jotzen dituzten beste askoren hizpide eta jokabideetatik. Ba dira apaizak eta gotzainak, Franco paliopean sarraraziko dutenak beren ardurapeko elizetan; badira orobat, beren buruak etxe zuloan gordeko dituztenak, ezer egin gabe; badira baita ere, egoeraz aprobeztatuko direnak; baita *iraultza ala hil* lelopean borroka armatua hobetsiko dutenak ...

JMAk osatzen duen nor izatean, aipatu bi hautu erabakien eragina nabaria da: nor bakoitzari bere burua eraldatzea eskatzen dion sinesmena da berea eta bere herriarekiko gudari hautua gizarte berri baten aldeko eragile izatera bideratzen du.

JMAk bultzatuko duen MKE aipatu ditugun sustraiko bi erabaki haietatik eta bere idazkietan adierazten duen hizpidetik loratu den landarea da, honako helburu honen zerbitzura: gizon emakume bakoitza bere jatorrizko duintasunean indarberritu, auzolanean gizarte berri bat eraikiz: «*El movimiento cooperativo, entre sacrificios y renunciaciones, coopera al nacimiento de un hombre nuevo y un nuevo orden social ...*». Asmo horren jatorriaz galdezka ari dela, honako hauxe dio Fernando Molina biografoak: “[...] *Los borradores para Voy, redactados en 1944, muestran que –como Maritain–, pensaba que «el individualismo burgués está muerto» y –como Mounier– entendía que «asistimos al derrumbamiento de una zona de civilización nacida a fines de la Edad Media, consolidada al mismo tiempo que minada por la era industrial, capitalista en su estructura, liberal en su ideología, burguesa en su ética».* La intensa lectura de estos pensadores, conjuntada con su creciente obra social, simplemente le permitió profundizar en ese proyecto de «orden nuevo para un hombre nuevo» que demandaba Mounier; en ese nuevo humanismo que pedía Maritain en que «cada persona pueda gozar de la libertad social lo mismo que de la política, y las clases trabajadoras llegar a su mayor edad histórica».

JMAk tradizio katoliko moderno horretan dakarren berrikuntza, hain zuzen, zera da: gizartearen errotik eraldatzeko laneko harremanak beste era batera antolatzea proposatzen duela, Europan nagusitu diren kapitalismo eta komunismoari kontrajartzen zaien auzolaneko eredu kooperatiboaren bidetik. Bide hori ebakitzen egindako esperientzietako bat litzateke Mondragoitik bultzatu zuen mugimenduarena. Hain zuzen, esperientzia hori abian jarri, aurrera arazi eta bururaino eramateko motorra osatuko dutenak, horretarako prestatuko diren pertsona jakinek sortutako taldeak izango dira, beren arlo teknikoetan ikasiak eta zailduak izateaz gain, barru bizitza sakon eta aberatsekoak, sinesmenez-erantzukizunez-goiburuz elikatuak, beren motorrari etengabe eragiteko energia zutenak. Horrela uztartzen dira JMA eta

MKE: bere alde-aldiko gizon emakumeentzat egitasmo burujabetzailea asmatuz, bere hitzetan honela laburbiltzen dena:

«comenzar por considerar a todos los hombres como ciudadanos de igual dignidad y destino y para ello la perspectiva de unos y de otros tiene que ser algo más que la despena. Todos deben tener acceso a la propiedad para que también todos sean responsables y en nada se justifica mejor este derecho que en la aplicación y ejercicio del trabajo, terminando el divorcio entre propiedad y trabajo».

Horrelako egitasmo erraldoia abian jartzeko pertsonak non aurkitu? JMA Loiolako Inazioren gogo jardunen eskolakoa zen: erabakimen pertsonala abiapuntu hartzen zuena. Baina erabaki hori benetakoa ote zenaren froga, bakoitzak egiten zuenean azaldu behar zen, bere gizartezkoan agerraraziz, bereziki bere laneko harremanetan. MKE bideratzeko buruzagi nahi zituenak, beren buruari uko egiteko gai zirenak behar zuten izan, hain zuzen bizitza ugariagoa eta aberatsagoa lortzeko biderik zuhurrena eta ziurrena horixe zela sinesten zuelako. JMAREN eraginpean MKEren lehen buruzagi izan zirenek, beren gogoz –eta gogo onez!– 1-3 bitartera mugatu zituzten langileen arteko soldata diferentziak. Hori baina ez zen egitasmoaren eskakizun tekniko bat, hautu morala baizik.

4. Bilera gogoangarri bateko ezbaiak eta eztabaidak

JMA gizabide eta gizarte eredu berri baten asmoa garatzen, lantzen eta egituratzen ari zen urte haietan ba zen, noski, *gizarte berri baten ametsa* egi bihurtu nahi zuen beste talderik ere. Aldatu nahi zuten herri-gizartea bat bera (¿) izanik ere, asmo eraldatzaile bakoitzaren *egile-eragileak, edukiak eta bitartekoak* zehatz aztertuz gero, nabariak ziren talde ezberdinen arteko aldeak. Baziren kristau jatorriko tradizioari JMAREN antzera atxikitzen zitzaizkionak, baina inola ere onartzen ez zutenak MKE orduko gizarteak zituen arazorik larrienei aurre egiteko bide egokia zitekeenik. Kristau eta katoliko izena erabiliz, beren buruak Francoren *mugimendu nazionalari* uztartu zizkietenak, ez ziren, oro har, nabarmentzen gizarte eredu berririk sortzeko mugimendurik egiten zutelako. Sozialismoaren aldeko tradizio eta adar ezberdinetatik hasita, berrantolatzen ari ziren sindikatu, alderdi politiko eta talde edo gizarte mugimendu antolatuek ere ez zuten MKErekiko jarrera hain baikorra. Toribio Etxeberria eibartarra eta JMA elkarren adiskide egin ziren arren, garai hartako buruzagi sozialistarik gehienak mesfidantzaz begiratzen zioten MKERI. Agirre Lehendakariaren ariko ikuspegi demokratikoa eta soziala hobesten zuten taldeen artean, bi joera nabari ziren urte haietan. Alde batetik, Francoren erregimena ahalik arinen zapuzteko borroka subertsiboari lehentasuna ematen ziotenena. Bestaldetik, garai hartako egoerak eskaintzen zituen aukerak erabiliz, Francoren erregimenaren ondorengo herrigintza eta gizartegintza berriak bideratzeko pertsona eta egiturak

lantzeari lehentasuna ematen ziotenena. JMAren asmoak, azkena aipatu dugun talde honen hizpidearekin du antzekotasunik handiena, aipatu ditugunen artean (talde horretan lerrotu daitezke, adibidez, Elbira Zipitriaren eskuko isileko ikastolak gizarte mugimendu ireki eta herrikoian bihurtzeko bidea ebakitzen buru eta eragile izan zirenak).

Buru hainbat aburu zen, beraz, inolako herri eta gizarte kezkarik zuten talde eta taldetxo ezberdinen artean 1950eko hamarkadaren erdi aldera. Batzuen eta besteen asmo horien oinarri teorikoari eta bideragarritasun praktikoari buruzko eztabaiden giroan jarri zuten abian eta erakundetu MKE, JMAk eta bere lankideek.

ULGOR -MKEren erne muin industrialak izan dena- abian jarri eta handik hamar urtetara, bere sortzaile izan zirenek eta JMAk bilera gogoangarri bat antolatu zuten. Beren ustetan, eurek ari zutenak, beren praktikak alegia, garbi erakusten zuen, gizon emakumeak beren buruaren jabeago egin eta gizarte berri bat eraikitzeko asmoa egi bihurtu zezaketela, auzolanean oinarritutako kooperatibagintzan sustraituta. MKEren sortzaile eta eragile buruak zirenek, beste hainbat taldetako ordezkariari gonbitea egin zieten, eurek ari zutena aurkeztu eta eztabaidatzeko, ea ez ote zen MKE gure herri gizartearen eraldatze prozesu berritzaile bat bururaino emateko bidea. Bilera hura isilekoa izan zen. Bertan izan ziren klandestinitatean bizi ziren sindikalista batzuk ere. Isileko bilera hori bi egunez burutu zen, Lanbide Eskolan, bertan egin genuelarik lo kanpotik joan ginenak. Ni neu han gertatzea, garai hartan ikastolak sortu eta hedatzeko eginahaletan ari zen talde bateko kiderik gaztena –eta libreena– nintzenari zor zaio, Irungo Ikastolaren sortzaileetan buruenetakoa zen Jabier Goenaren bitartez jaso nuelarik gonbitea.

Bilera hartan elkartu ginen denok esan genezakeen, ez geundela konforme bizi genuen egoerarekin eta ia denek esan zezaketen, herri gizarte berri bat sortzeko lanean euren esku zegoena egiten saiatzen zirela. Eztabaidak, ordea, nabariak ziren honako bi galdera hauen inguruan:

- *Ba ote du asmoz eta egitez bere berezko berezirik MKEk, ohizko tradizio liberal indibidualista eta sozial kolektibo zalea gaintzeko gauza izan daitekeena? Kapitalismoa – Sozialismoa ez baitik kanpo, ba ote du zer eskaini berezirik Kooperatibagintza Industrialak, gizarteak eta herriak beren buruaren jabeago gertatzeko?*

- *Diktadura politiko baten menpean gertatzen den herriak, sortu ote lezake zer-bait berririk ekonomiaren eta kulturaren arloetan gizarteko harremanak errotik aldatzeko? Hobetze aldera egindakoak ere ez ote dira gaintitu nahi litzatekeen diktadura sendotu eta luzarazteko aitzakia gertatuko?*

Euskal Herrietan gizarte egoera hobetze aldera lan egiteko prest zeuden herritarren artean oihartzun berezia zuten bi galdera horiek. Baina badago bi galdera horien barne muinetan gaurkoak ere badiren bi kezka:

- *Zer da egungo MKEren baitako enpresak bereizten dituen, azoketan konpetentzia dituen gainerako enprekin alderatuta?*
- *Hala balitz, bereizgarri horrek eskaini ote liezaioke aurrerabiderik enpresari eta herritarren ekonomiari egungo mundu globalizatuan?*

Bi galdera eta kezka hauek, nire iritziz, sustraikoak gertatu dira JMAk eta bere lankideek inguruko gizarte giroarekiko izan dituzten harremanetan. Galdera-kezka horiekiko JMAREN pentsaera-jarrera-jokabidea ezagutzen lagundu lezakeelakoan, bilera gogoangarri hartakoak aipatuko dira. Ene ustez, bilera hartan nabarmendu bai ziren, geroztik ere erabili izan diren hainbat argudio, kooperatibagintza industrialaren alde eta kontra, gizon-emakumeak batzuek besteen mendeko egiten dituen gizarte egitura zapaltzailetatik askatu eta den-denak beren buruen jabe izanaz garatzeko aukera eskaini lezakeen herri gizarte berria sortarazteari begira.

Hainbat galdera jarriko da eta galdera bakoitzaren inguruan JMAREN eta inguru giroko beste hainbaten jarrerak dialektikoki azalduko dira, beren elkarren kontra-koak azpimarratuz, ezbaiak agerian jarritz.

• 1. ezbaia: pausoz-pauso eraldatzea vs. “ezer ez egitea”- erreboluzioa

Bilera hartan sortu ziren eztabaidetan behin eta berriz argitu beharreko galdera zen, ea posible ote zen urte haietako Deba Garaian indarrean —eta indarrez— ezarria zegoen sistema sozio-ekonomiko-politiko haren baitan zerbait berria sortzea eta horrelako eginahaletan saiatzeak ez ote zuen sistema ustel hura betikitzen lagunduko. Alegia, kooperatibagintza industrialaren saiakera hura, gizon-emakume berriak sortzeko eta gizarte sistema berria eraikitzeko bidea izan ordez, ez ote zen burgeskume ttipien jolasa gertatuko, horretara egokitzen ziren langileen erabakimena moteldu eta despolitizatu zuena. Galdera honen inguruko eztabaidan, gardena eta etengabe errepikatua izan zen JMAREN eta bere lagunuen erantzuna: *auzolanean sortu eta kudeatzen ditugun enpresetako praktikak erakusten du, auzo laneko elkarrekin sortu eta garatzeko gauza direla langileak gure gaur-hemengo baldintzetan ere eta horretan ari diren langileak beren buruaren jabeago gertatzen direla, gizarte zeharo berri batetarako bidea ebakiz.*

• 2. ezbaia: auzolaneko bizitza vs. kapitalismoa-komunismoa

MKE ekarpen berria eta baikorra zela aitortzen zutenen artean ere, sarritan egingadako galdera izan beste hau ere: orduko mundu hartan, posible ote zen auzolan koo-

peratiboan oinarritzen zen bide berri hura, azokan oinarritzen den kapitalismoaren eta estatu boteretik planifikatutako sozialismoaren arteko borrokatik kanpo garatzea. Galdera sinplifikatuz, honela formula daiteke ezbaia: etorkizun bideragarririk izan lezake garapen ekonomikoak kapitalismotik edo sozialismotik at? JMAREN erantzunak ez du kilikolorik. Bere aukera teorikoak eta enpresetan garatzen diren auzo laneko praktikak, bien kontra ari dira. Kapitalismoaren kontra, gizon-emakumeak azokako indartsuenaren morroi bihurtzen dituelako eta Sozialismoaren kontra estatua kontrolatzen duen partiduaren edo taldearen morroi egiten dituelako langileak. Herrikideak beren eskuko eta beren buruaren jabe izateko, gertatuzko kapitalismoaren eta sozialismoaren berezko gaitzetatik askatuko dituen bidea asmatu behar da eta MKE asmo hori herri gizartearen behe-behetik abian jartzen hasi daitekeenaren froga da.

• 3. ezbaia: burujabetza vs. indarkeria errepresiboa edo erreboluzionarioa

Bere gizarte egoeran indarkeria errepresiboa jasaten duen langileak, nola lortuko du bere burua askatzea, erreboluzioari ekin gabe, egoera bidegabea gainditzeko beharrezkoak diren bitarteko denak erabiliz ez bada? JMARENtzat gizaki berririk eta gizarte eredu berririk ezin zitekeen eraiki indarkeria errepresiboa edo erreboluziogilea erabiliz, biek zirelako bidegabeak langileen eta herrien burujabetzaren ikuspuntutik. Tiranizidua bidezkoa da kristau etorriko pentsalarien artean, baina baldintza batekin: tiranoa hiltzearekin ekidin zitezkeen heriotza, nahigabe, zigor eta desgrazia baino gehiago ez ekartzekotan herritarrei, kontutan hartuz presio-erreprezio dinamika baten ondorioz behartsuenek jasango litzuketanak eta guzti horrek zer eskaini zezakeen helburu diren gizaki-gizarte benetan berriak sortzeko. JMAK erabaki garbia hartu zuen auzi honi buruz ere: langileek beren buruaren jabe izateko, euren eskuko auzo lanean oinarritu behar dute. Auzolan horri eskerrak behar beste indar metatu dezakete euren eta beren seme-alaben hezkuntza hobetzeko eta bizitzako behar izanei duintasunez erantzuteko.

• 4. ezbaia: nor burujabe elkarkideak vs. gizabanako isolatuak edo jendolde akaudilatuak

Gertatzen zaizkigunak –geure baitatik sortuak, gizarteak ezarriak edo naturak erantsiak– geure gustukoak ez ditugunean, gizon-emakumeok ezinbestean galdegiten dugu zer dela-eta jasaten dugun horrelako egoerarik, nor edo zer ote den gaitzaren iturburua eta zerk edo nork jarriko ote gaituen hoberako bidean. Bere buruaz jabetzeko gauza den izakiaren galderak dira hauek eta, hain zuzen, horiei erantzutean erakusten du gizakiak gainerako bizidunak baino gehiago ote den. Erantzunak asmatzen eta egokitzen dihardu gizon-emakume jaio denak etenik gabe, bere buruaz galdegiteari ezin utzi diolako. Historiaren etorrian -edo ekarrian?- oinarriko galdera horiei emandako erantzunen lekuko dira hainbat ipui, mito, atsotitz, buru-

tapen, gogoeta, ohikun, erakunde, sineskizun, uste e.a. ..., aldi-alde bakoitzean izan giro jakina osatzen dutenak, bere ezbai eta guzti. Gizon emakume jaiotzen denak berezkoa du izan giro hori –azalaren kolorea bezalaxe–, bakoitzaren izaera osatuko duen bertsoaren lehen puntua bailitzan, giza baitako eta elkartzeko izanbidea baldintzatu bai, baina osatzea beti eginkizun duena.

JMAk etxetik eta auzotik jaso zuen izan giroa, euskerazkoa eta kristauerazkoa izan zen, giro horrek garai hartako Markina - Eibar bitartean zituen ezbai eta berezitasun guztiekin. Giro horretan zaildutako umea izan zen. Dena den, bere helduaroko asmoen garapenean eragin handia izan zuten XX mendeko pentsalari kristau ikasien ekarpenek. Barandiaran, Mounier, Maritain eta Teilahrd de Chardin oso gogoko zituen. Baita gizarte arazoak konpontzeko bide berrien bila ari ziren pentsalariak ere. Jaso zituen guztietatik abiatuta, baina, bere erara burubidetu zuen bizitzako bertsoa. Eta dirudienez, puntuaren haria galdu gabe. Bere azkenengo esku izkribuan ere nabaria da, berari etorriak eta berak ekarriak bertso bat berean bilbatzen direla: *eskuz-esku, buruz-buru, ...*,

Gizon emakume bakoitzari “nor” izatea opa dio, bere buruaz jabetzen den norbait eta bere buruaren jabe egiten dena. Autokontzientzia eta autoerantzukizuna, bere baitakoak eta berezkoak dituen. Gizon-emakumeak horixe zor duelako berez: a) bere buruaz jabetzea (auzokontzientzia); b) bere eskuz eta buruz ari duenaren jabe egitea (autoerantzukizuna). Kontzientzia, bere nor izatea, norkide izatea denaz. Erantzukizuna bere jarduerak –edo jarduerarik ezak– bere baitan, lagun hurkoengan eta naturan dituen ondorio jakingarrietaz.

Ez du sinesten gizon emakumeak beren nor izatea aberasten dutenik, elkar suntsitzen eta elkar menderatzen saiatzen direnean. Ez du nahi inor beste inoren morroi, baizik, norkide, izankide (lankide, auzo, senide, anai-arreba). Mundu berri bat nahi eta espero du, behetik gora, auzokidetzan librea garatua, oraindik gertatu ez den beste era batera herri eta gizarte izateko auzo lan- eta bizikidetzan garatua.

5. Gogoeta pertsonalagoa

Asmo hori denentzat jotzen du hobe, ideiaz eta sinestez bereizten direnentzat ere bai. Kontua da, helburu hori lortu ezina dela, bere iritziz eta konbikzioz, elkarrekiko harremanak azoka itsuan edo estatuaren derrigorrean oinarrituta. Non aurkitu lezake gizakiak indarra bere baitan, azokako lege gordinei eta estatuaren botereari aurre egin eta norkidetzan librea borroka antolatzeko?

Jarri ditugun ezbaian aurrean, JMAk bere bidea ebaki zuela ukatzen duenik ez dago, bere pentsaera eta jokabidea aztertu dutenen artean. Baina bide horren nondik

norakoak argitzerakoan, ba dirudi gero eta gutxiago begiratzen zaiola JMaren kristau aldeari. Noski, ia denek aipatzen dute alde hori ere. Kontua da, eskaintzen zaion batez besteko garrantzia. Kontutan izanik HEMEN aldizkariaren ohizko irakurleari bereziki interesatuko zaiola, batez ere, horretxan ingurukoak jorratu dira gogoeta pertsonalagoa deitu diodan atal honetan.

JMaren idazkien bilduma eta berak esan-eginak aztertzen dituzten liburuak elkarrekin konparatzean azaldu denez, Joxe Azurmendik idatzitako *El hombre cooperativo* da gehien hurbiltzen zaiona JMaren corpusari, 54 kategoriak erabiltzeko batez bestekoan. Kasu honetan ere, baina, “Jesukristo Jainkoa” kategoria da distantzia negatiborik handiena azaltzen duena eta hurrena “familia”. Hori horrela gertatzearen arrazoia, Joxe Azurmendik berak ALERen 2014ko Batzar Orokorrean, Arizmendietaren Pentsaera hizpide zuela, esandakoa izan liteke: alegia, JMA alde ezberdinetatik begiratu eta aztertu daitekeela (sinestun, apaiz, gizarte eragile eta abar bezala), baina bere hautua pentsalari edo filosofo denez aztertzea dela, alderdi honi garrantzi gutxiegi ematen zaion ustea duelako.

Tellechea Idigorasek, aldiz, distantzia negatiborik handienak, “enpresa-lantegi” eta “gizaki-pertsona” kategorietan eskaintzen ditu. Horren arrazoia, esan dugunez, liburuaren izenburuak eman liezaguke: “*El otro Dn José María*”.

Gure ezagutzak aurrera egingo badu, gertakizunen alde ezberdinak zehatz-mehatz aztertu behar dira. Aztergai dugun gertakizuna, nor jakinak badira, gizon-emakumeak, auzokideak, langileak, herritarrak... eta beren pentsaera-jokaerak, non legoke gertakizun horren muina? Azterlariok berari buruz esan dezakegunean? Ez ote dago modurik, nor diren horien baitan beren buruak ulertzeko eta beren bizitza antolatzeko hizpideak, usteak, asmoak, nahiak, esperantzak... beren eragin erlatiboan jaso eta neurtzerik?

Galdera horri erantzungo dion zuribeltzik ez dago. Galdera hori edonorentzako baita beti erronka. Beraz, egingo dudan komentario honetan, Azurmendik eta Tellecheak hartutako bideen mugak azpimarratuko dira, JMA bere osoan errespetatzeari begira.

JMaren filosofiak, alegia, bere idazkietan nabari den hizpide kulturalki lan-duak, noski baduela Europaren aro modernoak interpretatu duten filosofoen ekarria. Baina ekarri horiek denak JMaren baitan, eten ezinezko loturaz uztartuta daude berak bizi izan zuen auzo eta kristau bizitzarekin. Orobat, bere sinestun eta apaiz izateko moduari eman zion osaera ezin isola daiteke, lanari, lankidetzari, enpresari eskaintzen zion garrantzirik, bere lagun hurkoa beti zelarik berezko duintasuna zor zitzaion nor jakina, sinestuna izan ala ez.

Honekin ez da inola ere adierazi nahi, MKE ezin zitekeenik abian jarri edo ezin daitekeenik aurrera arazi kristau jatorrikoak ez diren iturrietatik elikatzen dituzten gizon emakumeen eskutik. Ezta ere, kristau etorriari atxikitzen zaion gizon-emakumeak, kooperatibagintza duenik laneko harremanak hobetzeko bide bakarra. Azpimarratu nahi dena zera da:

a) MKEren jatorria eta lehen bilakaera gertatu ziren bezala gertatu zirela, esperientzia horren buruzagi izan zirenak zuten sinesmena zutelako eta erakutsi zuten jokabide etiko-morala exijitzen ziotelako beren buruei; beren gogo bihotzak transzendentzia ikuspegi sakon batean oinarrituta landu zituztelako, galdetuz ez bakarrik “zertatik bizi” behar zuten, baizik “zertarako bizi” nahi zuten, eta erabakiz beren indarrak auzo lankidetzara kooperatiboa bultzatzeko jarriko zituztela, legez eta usadiaz aukeran zituzten oportunitate askori uko eginaz eta erantzukizun latzak beren gain hartuz;

b) erabaki hori beren baitan elikatu zuena, Jainkoa eta lagun hurkoa maitatzeko gogoia izan zela, kristauerazko sinesmenean sustraitzen zutena.

Ingeniaritza teknikoak, gizon-emakumeon eta herrien izaera hobetzeari dago-kionez, ezin du helbururik erabaki espirituaren ingeniaritzaz baliatzen ez bada. Eta espiriturik bikainenak ere ezingo du mundurik hobetu, bitarteko egokirik erabiltzen ez badu. Harrigarria da, hainbat eraikin eta erakunde teknologiko sortu dituen MKEak, nik dakidalarik, ez sortu izana mundu mailan ezaguna izan beharko lukeen ikergune bat, auzo- eta lankidetzaren espiritualitatea lantzeko. MKEren sorrera eta bilakaera historiakoan berezko bereizgarria duena ez baita bertako langileek erabili dituzten teknikak, baizik eta azokan ohizkoak diren teknikak erabiliz lan harremanak beste era batera antolatzea.

Gizon emakumeon, auzoen, herrien eta gizartearen espiritualitateak aztergai litzukeen ikergune batek –MKEren ikuspegi historikotik– behin eta berriz jarri beharko lukeen galdera da, zerk bultzatu eta eragin lezakeen nor bakoitza “*neuk egin bide dut*” bere buruari esatera, Loiolako Iñigok esan zuen erara, bere buruaren sakoneko eraldatzea bere gain hartuz, ez ordea besteak mendean hartu eta zapaltzeko, baizik nor bakoitza bere eskuko eta bere buruaren jabe aitortzen duen elkarte-zko burujabetzan aurrera egiteko. Gaur krisian dagoena, hain zuzen, teknika baino gehiago etika baita, bereziki horrelako “*neuk egin bide dut*” oinarrituko duten sinesmenena eta erabakimena.

I ERANSKINA

54 KATEGORIETATIK, ALDERATU DIREN 6 IDAZKI CORPUSETAKO BAKOITZEAN MAIZTASUNIK HANDIENA DUTEN LEHEN HOGEI KATEGORIAK HARTUTA, OSATU DEN 37 KATEGORIEN ZERRENDA

Zbk.	KATEGORIA	KATEGORIA BAKOITZAREN ADIERAZLETZAT ONARTU DIREN HITZ EDO ESALDIAK
1	GIZAKI - PERSONA	(PERTSONA PERTSONAK PERTSONEK\$ PERSONA PERSONAS GIZON\$ HOMBRES MUJER\$ ANDRE ANDREAK EMAKUM\$ ANDERES ANDRAZKO\$ HUMANO HUMANOS HUMANA HUMANAS GIZAKIS GIZA GIZA-\$)
2	GIZARTE - SOCIAL	(GIZARTE\$ SOCIEDAD\$ SOCIAL SOCIALES)
3	GIZABANAKO - INDIVIDUO	INDIVIDU\$ GIZABANA\$ (GIZA ADJ BANAK\$)
4	ENPRESA - LANTEGIA	(EMPRESA\$ ENPRES\$ ENTREPRES\$ INDUSTRI\$ (CENTRO ADJ2 TRABAJS) LANTEGI\$ LANTOKI\$ FABRICA FABRICAS FABRIKA FABRIKAK\$ TALLERS)
5	LAN - TRABAJO	(TRABAJS LAN LANA LANAK LANARE\$ LANARIS LANEK LANENTZ\$)
6	JAINKO - DIOS - IK	(JESUKRIS\$ O JESUS\$ O JESUCRIS\$ O DIOS\$ O CRIS\$ JAINKO\$ JAUNGOI\$)
7	HEZKUNTZA - EDUCA	(FORMACION EDUCAC\$ FORMAZIO\$ FORMAKUNTZ\$ HEZKUNTZ\$)
8	BEHARRIZAN - NECESIDAD	(NECESITA\$ NECESARI\$ NECESIDAD\$ BEHARRIZAN\$ (BEHAR ADJ IZAN\$))
9	HERRI - PUEBLO	(HERRI\$ PUEBLOS POPULAR\$)
10	SUSTAPEN PROMOCION	(ACTUACION\$ IMPULS\$ INTERVENCION\$ PROMOVER PROMOCION SUSTAS BULTZA\$ EKINTZ\$)
11	FAMILIA	(GURASO\$ PADRES MADRES FAMILIAS HIJOS HIJAS SEMEALAB\$)
12	TALDE GRUPO	(GRUPOS ASOCIACION\$ ASANBLAD\$ KOORDINAKUN\$ ELKARTES TALDES COORDINADORAS\$ PLATAFORM\$ ASAMBLEAS)
13	PROGRAMA - PLAN	(PROGRAMAS PLAN\$)
14	KRISTAU - CATOLIC	(CRISTIAN\$ CATOLIC\$ KRISTAU\$ KATOLIK\$)
15	EGIA - VERDAD	(VERDAD\$ EGIA EGIAK EGIAR\$ EGIAT\$ EGI-\$ EGIEK EGIET\$)
16	EKINTZA - ACCIÓN	(ACCION ACCIONES EKINTZA\$)
17	TEKNO - TEKNI	(TEKNO\$ TECNOS TECNI\$ TEKNIS)
18	ASKA - LIBERTAD	(LIBERTAD\$ LIBRES ASKE\$ ASKAS)
19	MODERN\$ VANGUARD	(MODERN\$ ACTUAL\$ VANGUARD\$ ABANGOARD\$)
20	ANTOLAS ORGANIZACI	(ORGANIZA\$ ANTOLAS)
21	ALDE APOYO	(ALDE ALDEK\$ FAVOR FAVORABL\$ APOYAS APOYOS AYUDAS LAGUND\$ LAGUNTZ\$)
22	ELKARTASUN SOLIDARIDAD	(SOLIDARI\$ ELKARTASUN\$ ELKARLAGUNTZ\$)
23	BETEBEHAR\$ DEBER\$	(OBLIGACION OBLIGACIONES DEBER\$ DEBERES\$ EGINBEHAR\$ BETEBEHAR\$)
24	ESKUBIDE\$ DERECHOS	(DERECHO DERECHOS ESKUBIDES)
25	EKIMEN\$ INICIATIV\$	(INICIATIVAS DINAMIC\$ DINAMISMO\$ DINAMIK\$ EGIN EKIMES EKINTZAI\$)
26	LEGE LEY	(LEY\$ LEGE LEGEAS LEGALID\$ LEGAL\$ DEKRETS LEGES ARAUS ALEGAL\$ DECRETOS NORMATIV\$ ORDENANZAS)
27	PUBLIKO\$ PUBLICO\$	(PUBLIKO\$ PUBLICO\$ PUBLICAS)
28	GAITASUN\$ DESTREZAS	(HABILIDAD HABILIDADES CAPACIDAD CAPACIDADES COMPETENCIAS AHALMEN\$ GAITASUN\$ DESTREZAS PROFESIONALID\$ COMPETENTES PROFESIONALTAS\$ EFICIENC\$ EFIZIENTZ\$ (GAI ADJ IZAS))
29	NAZIO NACIONAL	(NACION NACIONAL NACIONES PAIS PAISES NAZIO NAZIOA NAZIONAL NAZIONALAS NAZIONALE\$ HERRIALDES)
30	ERANTZUKI\$ RESPONSABIL\$	(RESPONSAB\$ ERANTZULE\$ ERANTZUKI\$ ERANTZUNKI\$)
31	ETORKIZUN\$ PORVENIR	(ETORKIZUN\$ FUTUROS PORVENIR ESTRATEG\$)
32	CULTURA\$ KULTURAS	(CULTURAS KULTURAS)
33	HELBURU\$ OBJETIVO\$	(META METAS HELBURU\$ XEDE\$ OBJETIVOS)
34	SALEROS COMERCIO	(COMERCIO\$ COMERCIANT\$ SALEROS\$ DENDAS (CENTROS ADJ2 COMERCIAL\$) TIENDA (GRAN ADJ SUPERFICIE) (GRANDES ADJ SUPERFICIES) HIPERMERS SUPERMERS MERCAD\$ MERKATS)
35	LANPOSTU\$ EMPLEO\$	((PUESTOS ADJ TRABAJOS) LANPOSTU\$ (LAN ADJ POSTU\$) ENPLEG\$ EMPLEO\$ EMPLEAB\$ EMPLEAD\$ (PUESTOS ADJ TRABAJOS) LANPOSTUS (MERCADO ADJ (TRABAJOS LABORAL\$)))
36	EGITASMO\$ PROYECTO	(PROYECTOS EGITASMO\$ EGINASMO\$ PROIEKTS)
37	IKERT\$ INVESTIGA	(INVESTIGAS IKERTS IKERKETS IKERTZAI\$)

II ERANSKINA

MCC, CAJA LABORAL, IKERLAN, KOOPERATIBEN KONFEDERAZIOA ETA ALE (Arizmendiarrietaren Lagunen Elkartea) ERAKUNDEEK DITUZTEN WEB ORRIETATIK DOKUMENTUEN LAGIN ESANGURATSUAK JASO ZIREN ETA BEREN EDUKIA JMAREN 13 LIBURUKIEN EDUKIAREKIN KONPARATU ZEN, HAINBAT KATEGORIEN GARRANTZIA ERALATIBOA IKERTUZ BALIOEN IKUSPUNTUTIK

DOC	KERKETAN ALDERATU DIREN ERAKUNDEAK EDO IDAZLEAK	MCC	CAJA LABORAL	IKERLAN	KONFEKOOP	JMA-LAGUNAK	JMA
		WEB	WEB	WEB	WEB	WEB	DENA
		MCCO	CLBO	IKEO	FCOO	ARIO	ALDE
DOC	DOKUMENTU KOPURUA	363	50	230	177	161	13
1	(PERTSONA PERTSONAK PERTSONEK\$ PERSONA)	26,65	0,08	23,90	42,86	199,82	533,05
2	(GIZARTES\$ SOCIEDAD\$ SOCIAL SOCIALES)	241,77	216,17	4,02	1209,23	483,84	365,53
3	(EMPRESAS\$ ENPRES\$ ENTREPRES\$ INDUSTRI\$)	681,61	22,60	203,94	218,08	820,62	293,88
4	(TRABAJ\$ LAN LANA LANAK LANARES\$ LANARIS\$)	35,87	1,79	458,31	425,50	271,51	287,20
5	(JESUKRIS\$ O JESUS\$ O JESUCRIS\$ O DIOSS\$ O)	0,73	0,00	1,26	0,18	7,59	275,09
6	(FORMACION EDUCAS\$ FORMAZIOS\$ FORMAKUNT\$)	204,97	0,02	1,97	54,05	7,74	202,93
7	(NECESITAS\$ NECESARIS\$ NECESIDAD\$ BEHARS\$)	3,22	4,07	22,44	22,31	83,08	195,00
8	(ESCUELAS\$ ESKOLAS\$ IKASTOLS\$ COLEG\$ LICEOS\$)	2,83	0,00	0,17	2,57	24,41	143,56
9	(HERRIS\$ PUEBLOS\$ POPULARS\$)	0,40	38,87	0,06	1,10	1,30	140,97
10	(ACTUACION\$ IMPULS\$ INTERVENCION\$ PROMOCION\$)	192,16	66,97	15,07	162,82	65,81	137,63
11	(GURASOS\$ PADRES\$ MADRES\$ FAMILIAS\$ HIJOS\$ HIJAS\$)	0,24	2,79	0,60	13,91	5,21	131,78
12	(GRUPOS\$ ASOCIACION\$ COLECTIVOS\$ ASANBLAJAS\$)	72,95	40,66	31,44	141,32		118,42
13	(PROGRAMAS\$ PLAN\$)	331,15	34,10	99,65	317,91	84,64	117,67
14	(COLABORA\$ COOPERACION\$ COOPERAR\$ COOPERATIVISMO\$)	9,98	0,00	83,12	86,61	203,80	101,55
15	(TEKNOS\$ TECNOS\$ TECNIS\$ TEKNIS\$)	39,35	0,02	948,70	30,85	0,30	74,41
16	(MODERN\$ ACTUAL\$ VANGUARDS\$ ABANGUARDAS\$)	288,37	257,99	44,23	18,03	93,31	69,90
17	(ORGANIZAS\$ ANTOLAS\$)	167,91	15,35	11,10	158,68	78,57	69,82
18	(ALDE ALDEK\$ FAVOR FAVORABL\$ APOYAS\$ APOYOS\$)	9,33	31,57	5,44	46,22	116,22	68,23
19	(LEYS\$ LEGE LEGEAS\$ LEGALID\$ LEGAL\$ DEKRETO\$)	138,09	41,06	170,28	180,70	9,19	48,60
20	(PUBLIKOS\$ PUBLICOS\$ PUBLICAS\$)	4,17	107,88	352,15	211,26	140,37	48,44
21	(RESPONSAB\$ ERANTZULE\$ ERANTZUKI\$ ERANTZUKITZA\$)	1,72	32,37	1,67	32,43	46,13	46,48
22	(PARTEHARTZ\$ PARTICIPAS\$ (PARTE ADJ HARS\$)	224,20	176,96	74,21	110,82	129,02	46,18
23	(ETORKIZUN\$ FUTUROS\$ PORVENIR\$ ESTRATEGIAS\$)	187,10	73,85	55,49	10,07	48,36	45,93
24	(GESTIO\$ KUDEAS\$)	198,64	385,98	26,42	27,60	111,61	36,82
25	(BENEFICIOS\$ RENTABLE\$ RENTABILIS\$ IRABAZIS\$)	3,00	358,79	0,19	2,20	9,04	25,97
26	(COOPERATIVISTAS\$ KOOPERATIBISTAS\$)	1,07	0,00	0,00	0,80	280,02	25,12
27	(INVERSION\$ INVERTIR\$ INBERTSIO\$ INBERTITUTAS\$)	12,78	619,25	1,08	3,64	1,19	22,68
28	(COMERCIO\$ COMERCIANTAS\$ SALEROS\$ DENDA\$)	27,86	386,60	19,30	4,80	13,06	21,13
29	(RIESGO\$ ARRISGS\$ ARRISKS\$)	0,14	260,12	0,19	14,75	2,68	18,42
30	((PUESTOS\$ ADJ TRABAJOS\$ LANPOSTUS\$ (LAN ALDARAK\$)	192,46	28,32	0,17	16,18	5,83	14,53
31	(COOPERATIVISM\$ KOOPERATIBISM\$)	292,72	0,00	0,00	21,04	342,92	12,46
32	(MERCADOS\$ MERKATU\$)	13,24	383,01	14,08	1,92	8,93	11,69
33	(PRODUCTOS\$ PRODUKTUS\$)	16,75	55,67	118,15	1,50	0,60	11,45
34	(PROYECTO\$ EGITASMO\$ EGINASMO\$ PROIEKTA\$)	30,63	0,00	156,52	27,94	98,22	11,24
35	(INVESTIGAS\$ IKERTAS\$ IKERKETAS\$ IKERTZAIS\$)	16,77	0,00	783,92	8,84	2,01	8,20
36	(CONSEJEROS\$ CONSEJO KONTSEIS\$)	3,13	0,02	0,35	152,53	1,82	7,18
37	(ENERG\$)	2,33	0,08	69,27	0,30	0,89	6,85
38	(INFORMES\$ TXOSTENS\$)	123,69	156,97	1,15	18,47	0,33	4,05
DOC		363	50	230	177	161	13